

# EAEko IKASTETXEETARAKO PROTOKOLOA, IKASLE TRANSEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO



## **Argitaraldia**

2024ko apirila

@ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Hezkuntza Saila

## **Internet**

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/liburutegia-artxiboa-argitalpenak/argitalpen-zerbitzu-nagusia/>

## **Argitaratzailea**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco C/Donostia-San Sebastian, 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ

## Aurkibidea

1.	Hitzaurrea .....	5
2.	Adingabe transak .....	9
3.	Lege-esparrua .....	13
4.	Ikasle transei eta haien familiei hezkuntza-esparruan laguntzeko ikastetxeetarako protokoloaren helburuak .....	23
	4.1. Ikasle trans batek bere egoeraren berri ematen duenean .....	26
	4.2. Amek, aitek edo legezko tutoreek haien seme-alaba transaren egoeraren berri ematen dutenean .....	28
	4.3. Ikasle transaren egoera hezkuntza-komunitateko beste edozein kidek jakinarazten duenean .....	29
	4.4. Oinarrizko antolakuntza-neurriak eta segurtasun- eta babes-neurriak hartzeko orientabideak .....	30
	4.5. Pertsona transek izena aldatzeko egin beharreko prozedura administratiboa .....	31
5.	Eranskinak .....	33
	1. Eranskina. Protokoloaren irekiera .....	35
	2. Eranskina. Esku hartzeko plana .....	37
	3. Eranskina. Eskola-jazarpeneko protokoloa .....	40
	4. Eranskina. Berdindu zerbitzua <sup>11</sup> .....	55
	5. Eranskina. Trans gaiarekin lotutako definizioak .....	56



1



# Hitzaurrea



Eskola inklusiboa garatzeko esparru-planak ezartzen du inklusioa dela gizarteak aniztasun-adierazpen guztiei (adierazpen linguistikoari, kulturalari, ahalmenen, gaitasunen, sexu-joeraren eta generoaren adierazpenei, adierazpen sozioekonomikoari, etab.) erantzuteko izan behar duen modua. Justizia sozialeko paradigma etiko batetik abiatzen da, eta diskriminazio eta bazterkeria mota guztiak gainditzea esan nahi du. Erdigunean ditu guztion eskubide-berdintasunaren printzipioa eta, ondorioz, eskubide horiek pertsona guztientzat eta testuinguru sozial eta pertsonal guztietan gauzatzeko betebeharra dauka gizarteak.

Aniztasuna, bestalde, aberastasun sozial eta pertsonaleko faktoretzat hartu behar da, berezkoa baita etengabe aldatzen ari den gizartean eta aldaketa horien ondoriozko erronkei aurre egiten laguntzen baitu. Eskolak, gizartearen parte den eta horren osaeran eta garapenean garrantzi handia duen heinean, laguntza eman behar du inklusio-printzipioak aplikatzeko esparru guztietan, bereziki prestakuntzaren eta bizikidetzaren alorretan. Hala, eskola-komunitateko profesional guztiek eta gainerako kideek ideia hau izan behar dute gogoan: edozein gizataldetan aniztasuna araua da, ez salbuespena.

Inklusioaren sustapena funtsezko elementua izan da eta izaten jarraitzen du, eta, EAEko hezkuntza-sistema identifikatzeaz gain, horren ildo estrategikoetako bat da. Urte hauetan, neurri asko hartu dira eskola inklusiboa sustatzeko eta aniztasunari erantzun egokia emateko. Alabaina, kontuan hartuta etengabe aldatzen ari den gizarte konplexu batean bizi garela, eskolak modernizatzeo eta hobetzeko ahaleginak egiten jarraitu behar du, bere indar eraldatzailea garatzeko eta gaur egungo erronkei erantzuteko.

Haur eta nerabe guztiei ikuspegi inklusibotik modu pertsonalizatuan erantzuteko beharrezkoa da estrategia globalak sustatzea eta haien garapen pertsonal eta akademikoa mugatu dezaketan oztupoak ezabatzea. Horretarako, erabat aldatu behar dira eskolaren egitura, funtzionamendua eta proposamen pedagogikoak. Helburua da ikasleek beren gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien gara ditzatela, irteera-profilean aurreikusitako helburuak eta eskumen gakoak eskuratzera bideratuta. Azken finean, inklusioa irismenarekin eta parte-hartzearekin dago lotuta, eta eskola inklusiboa da ikasleen desberdintasunarekiko errespetua eta onarpena barne hartzen dituen eta malgutasunez antolatzen dena aniztasunari erantzuteko eta ikaskuntza arrakastatsuak sustatzeko. ([Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana](#)).

Inklusio, ekitate eta justizia sozialaren printzipioa oinarri hartuta, [Bizikasi](#) ekimena ezarri da. Ikastetxeak elkarbizitza positiboko gune seguru eta inolako jazarpen-egoerarik toleratzen ez duten espazio bihurtzea da ekimen horren helburua. Izan ere, hori lortzea ezinbestekoa baita hezkuntza-sistemaren xede nagusia betetzeko, alegia: ikasle guztiei laguntzea haien garapen pertsonalean zehar eta, konpetentziak eta tresnak ematea gizartean parte har dezaten herritar aktibo eta arduratsu gisa.

Horretarako, funtsezkoa da bizitzaren esperientzia partekatzea pertsona guztien duintasunaren defentsaren, ekitatearen, inklusioaren eta elkarrekiko errespetuaren defentsatik abiatuz. Beraz, beharrezkoa da elkarbizitzan eta elkarbizitzarako hezteak. Atmosfera positiboa sortu eta ingurune seguruak eta giro abegitsuak sustatu behar ditugu, guztiek parte hartu eta beren potentzialtasun guztiak ahalik eta gehien garatuz ikas dezaten. Hau da, taldeko kide izatearen sentimendua eta lotura landu behar dira, horiek baitira eskola inklusiboa eraikitzeo tresnarik onenak.

Zentzu horretan, kompetentzia emozionala garatu behar dugu; eta, horretarako, gatazkak modu baketsuan ebazteko estrategiak bultzatu, hezkidetzak landu eta zaintzaren pedagogia sustatu behar dugu. Era berean, gaitasunak garatu behar ditugu laguntzeko eta laguntza eskatzeko, tratu ona eman eta jasotzeko, eta autoestimua, entzute aktiboa, asertibitatea, erresilientzia eta enpatia lantzeko. Hau da, solidaritatearen oinarriaren gainean eraiki behar dugu ikasleen ongizate emozionala zaindu eta sustatzen duen eskola. Horiek horrela, adierazitako alderdiak sistematikoki lantzeari kalitatezko denbora eskaintzen badiogu, ikasleek bizi-trantsizioei aurre egiteko duten gaitasuna handituko da, eta sustatuko dugu haurtzaroaren eta nerabezaroaren berezko bilakaera-aldaketen testuinguruan (aldaketa fisikoak zein psikologikoak) izan ditzaketen zailtasun sozioemozionalei aurre egiten lagunduko dieten tresnak eskura ditzatela.

Bestalde, [EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzak Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean](#) planean adierazten den moduan, hezkuntza genero-aurreiritziak eta -estereotipoak gaingintzeko funtsezko elementua da. Eskola funtsezko eragile sozializatzailea da, eta, testuinguru horretan, ikastetxeak behar-beharrezkoak dira ikasleen arteko botere-harremanak eraldatzen laguntzeko; horretarako, aldaketak egin behar dituzte berdintasunean oinarritutako eta indarkeriarik gabeko hezkuntza bermatzeko. Era berean, espazio aproposak dira ikasle guztiak existitzen diren sexu-identitate guztien aniztasunaren gaineko errespetuan sozializa daitezen.

Hezkidetzarik ez badago, hezkuntza partziala izateaz gain, sexista ere izango da. Denok igarotzen gara eskolatik, ikastetxetik, gure bizitzaren aldi luze batean. Hezkuntzak kontuan izan behar du ikasgeletako eta ikasleen arteko aniztasuna, ikuspegi holistiko batetik abiatuta (LGBTI ikasleak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, ikaskuntza-eredu desberdinak dituzten ikasleak, maila sozioedukatibo ezberdinetatik datozen ikasleak, ikasle migratzaileak, etab.).

Hortaz, hauek dira hezkidetzak-eskolaren<sup>1</sup> helburu nagusiak:


1. Hezkuntza-arloan egiten den araudiak berdintasun- eta hezkidetzak-manuak betetzen dituela bermatzen jarraitzea.
2. Emakumeen jakituria eta beren ekarpen sozial eta historikoa diziplina guztietan txertatzea.
3. Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatzeko, genero-rol eta -estereotipoak alde batera utzita.
4. Ikasketa- eta lanbide-orientazio ez-sexista bermatzea.
5. Berdintasuna barne hartzea ezkutuko curriculumean eta ageriko curriculumean.
6. Aniztasunaren molde guztiak txertatzea. Heziketa-jardunari hezkidetzatik heltzean, desberdintasun guztiak aintzat hartzen direla bermatu eta desberdinkeria saihestuko dugu.
7. Baliabideen eta espazioen erabilera zuzena sustatzea.

---

<sup>1</sup> Hezkuntza Saila: [EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzak Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean](#).



2



**Adingabe transak**



Generoa konstruktua kulturala da, gizon eta emakumeei, mutiko eta neskatoei, jaiotzean ezarritako sexuaren arabera rol estereotipatu jakin batzuk esleitzen dizkiena. Konstruktua kultural eta sozial horrek haurtxoak markatzen ditu jaiotze aurretik ere; eta, beraz, genero-agindu horiei haurtzarotik heldutasunera arte jarraitzea behartuta daude. Agindu horiei jarraitzen ez badiete, desberdinak direla sentituko dute eta portaera ez-normatiboa dutela esango da.

Sexu- eta/edo genero-aniztasuna, adingabeei buruz ari garenean, termino inklusibo eta orokorra da, eta adingabe trans deritzenen errealitate oso ezberdinak biltzen ditu.

Errealitate horiek gizakiaren aniztasunaren parte dira, nahiz eta askotan ez diren agerian jarri, ulertu, baloratu eta normaltasunez integratu maila sozialean, izan ere oso sexistak eta transfobikoak diren sinesmenen sistema batekin lotuta dauden askotariko oztopoak baitaude. Hezkuntza afektibo eta sexualak eta generokoak aniztasun hori integratu behar luke; are gehiago, berdintasun, pluraltasun, aniztasun eta errespetuaren balioak transmititzeko baliabide eraldatzaileak eta ezinbestekoa izan behar luke.

Beren genero-identitatearekin ados ez dauden adingabeen adierazpena genital batzuetan oinarritzeak, zenbait kasutan, zaurgarritasun handiko egoerak eragin ditzake, bai eta integrazioko, eskola-jazarpeneko edo gizarte-bazterkeriako arazoak sortu ere. Eta arazo horiek, hezkuntza-esparruan, eskola uztea edo eskola-porrota eragin dezakete, eta horrek ondorio negatiboak izan ditzake etorkizun pertsonal eta profesionalean.

Transek zein zailtasuni aurre egin behar izaten dioten kontuan hartuta, komeni da hezkuntza-esparruan zailtasun horiek behar bezala artatzeko jarduketak garatzea, adingabeen familiartekoak eta ingurua aintzat hartuta, erabateko gizarteratzea ahalbidetzeko eta gaitzespen-, diskriminazio- edo transfobia-egoerak saihesteko.

Horregatik guztiagatik, hezkuntza-esparruan beharrezkoa da horrelako egoerei aurre egitea, hezkuntza-komunitateari informazioa eta prestakuntza eskainiz eta desberdintasunetikiko tolerantzian eta errespetuan oinarritutako balioak irakatsi eta praktikan jar daitezela sustatuz.

Dena den, kontuan hartu behar dugu gure gizarteak ez dituela beti baloratzen aniztasun guztiak, gizartea oraindik sexista dela eta genero normatiboetan hezitzen duela, eta heziketa horretan maiz izaten direla diskriminazio-egoerak, erasoak eta jazarpenak. Errealitate hori eskolan ere islatzen da, ume eta gazte batzuek arazoak izaten baitituzte garapen osasungarria lortzeko, sentitzen duten sexua ez datorrelako bat jaiotze zirenean ezarritakoarekin edo ez dituztelako betetzen maskulinitasun- edo feminitate-arau hegemonikoak.

Hezkuntza-testuinguruek ikasle guztien errealitate anitzak hartu behar dituzte kontuan eta espazio seguruak izan behar dute, non hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiak babestuta sentitzen diren, euren errealitatea edozein dela ere.

Eskolak hezkuntza-testuinguru seguruak eta sexu- eta/edo genero-aniztasuneko adingabeekiko, haien familiekiko eta inguruarekiko diskriminaziorik gabekoa sortu eta bideratu behar du. Hau da, laguntzarik onena eman ahal izateko testuinguruak.

Eskola inklusiboak erantzun bat eman behar dio errealitate anitz horri, hezkidetzak eta berdintasun-gaietan planteamendu globalak eginez, sexu- eta genero-aniztasuna ezagutzeko eta errespetatzeko oinarrituta, ikastetxeen politiketan, kulturetan eta praktikan eragina izan dezaten. Curriculumean eta eskola-bizitzan, sexu-aniztasuna ikusarazteko neurriak sartu behar ditu, bai eta indarkeria mota guztiak desnaturalizatzeko, tratua sustatzen duten eta indarkeria matxista zein LGTBfobia prebenitzen dituzten hezkuntza-jardunbideak

garatzeko, eta edozein tratu txarri proaktiboki eta sozialki erantzuteko ere. Planteamendu, ekintza eta neurri horiek ikastetxean egiten diren agiri guztietan islatu behar dira (Hezkuntza Proiektuan, Bizikidetzaren Planean, Hezkidetzaren Planean, Antolakuntza eta Jarduera Araudian, protokoloetan...), eta hezkuntza-komunitate osoak parte hartu behar du haiek garatzen.

Agiri honen bidez hezkuntza-esparruan jarduketa-jarraibide batzuk ezarri nahi dira, erantzun egokia eta eraginkorra eman dadin eta adingabearen interes gorena kontuan har dadin, ikasleak -kasu honetan, ikasle transak- sentitzen duen edo adierazten duen

identitatea aitortzeko eskatzen duenean. Bereziki, adingabearen gurasoek edo legezko ordezkariak hori egiteko berriazko baimenik eman ez dutenean edo argi eta garbi horren aurka daudenean.

Trantsizio-prozesu guztiak ezberdinak dira eta izango dira; haurren edo nerabearen erritmoa, premiak eta eskariak errespetatu behar ditugu, baita ikastetxean azal daitezkeen genero-adierazpen guztiak ere.

3



**Lege-esparrua**



**4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrari eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzkoa.**

II. KAPITULUA. LGTBI pertsonen berdintasun eraginkorra sustatzeko politika publikoak.  
5. atala. Hezkuntzaren arloko neurriak.

21. artikulua.  
*Hezkuntza-administrazioen betebeharra.*

1. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen esparruan:
  - b. Ikastetxeekin elkarlanean arituko dira LGTBI pertsonen sexu-, genero- eta familia-aniztasunarekiko errespetua sustatzeko ekintzetan.
  - c. Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 121. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren esparruan, ikastetxeen hezkuntza-proiektuetan eta haien antolamendu-, funtzionamendu- eta bizikidetzara-eraketan eskola-jazarpenera eta -ziberjazarpenera prebenitzeko protokoloak aplikatzea sustatuko dute, LGTBI fobiak eragindako jazarpenera kontuan hartuta.
  - d. Hezikidetzara- eta aniztasun-planak egitea bultzatuko dute. Plan horietan, besteak beste, irakasleak LGTBI pertsonen sexu-, genero- eta familia-aniztasunarekiko errespetuan prestatzeko ekintzak jasoko dira.
2. Hezkuntza-ikuskaritzako zerbitzuek lege honetan jasotako printzipioak eta balioak betetzen eta aplikatzen direla zainduko dute.

**17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.**

II. KAPITULUA. Euskal Hezkuntza Sistemaren printzipio, helburu eta balioak

3. artikulua. *Euskal Hezkuntza Sistemaren printzipioak.*

Hona hemen Euskal Hezkuntza Sistemaren printzipioak, oinarrizko araudi aplikagarrian jasota daudenez gain:

- a. Ikasleen garapenera pertsonala eta soziala, hezkuntza-sistemaren ardatz gisa.
- b. Inklusioa eta ekitatea, aukera-berdintasunaren berme gisa.
- c. Gizarte-koherentsia, pluraltasunarekiko errespetua, eta pentsamendu- eta sinesmen-askatasuna, bai eta giza eskubideen eta aniztasunaren defentsaren bermea ere, laikotasun-printzipioaren esparruan.
- f. Elkarbizitza positiboa eta kulturartekotasuna, askotariko eskola libre, seguru eta indarkeriarik gabeko baten zutabe gisa.
- i. Emakumeen eta gizonen berdintasuna errealitate bilatzeko eta aniztasunaren errealitatean errotuta, bazterkeria- eta marjinazio-moduguztietatik desberdinkeriei aurre egiteko konpromisoa, eta pertsona guztienganako errespetua.

#### 4. artikulua. *Euskal Hezkuntza Sistemaren helburuak.*

Hona hemen Euskal Hezkuntza Sistemaren helburuak, oinarritzko araudi aplikagarrian jasota daudenez gain:

- e. Hezkuntzarako eskubidea benetan gauzatzen dela eta ikasleen nortasuna eta konpetentziak erabat garatzen direla bermatzea, inklusio-printzipioari jarraituz, garapen integrala bultzatuz eta ikasle guztientzako ikaskuntza arrakastatsuak sustatuz.
- f. Oinarritzko eskubide eta askatasunen adierazpide ororekiko errespetuan heztea, batez ere edozein arrazoi edo inguruabarrengatik diskriminaziorik ez izateari dagokionez.
- g. Tolerantziaren eta askatasunaren erabilera sustatzea printzipio demokratikoen barruan, ikastetxeetan onartzen diren elkarbizitza-planen bidez indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.
- h. Ikasleen ongizate sozioemozionala eta osasun fisikoa sustatzea, konpetentzia sozioemozionalak garatuz, ohitura osasungarriak sortuz, elikadura orekatua eta arduratsua bultzatuz eta jarduera fisikoa eta kirola sustatuz –kirol egokitua barne dela–.
- j. Ikasleak prestatzea herritartasun bete-betea egikaritzeko eta gizartean aktiboki txertatzeko.
- j. Hezkidetzaren alde egiten duen eta pertsonen garapen integrala sustatzen duen eskola-eredu bat lortzea, sexuaren araberrako estereotipoak eta rola alde batera utzita eta diskriminazio eta indarkeria mota guztiak arbuiatuta, arrazoa zeinahi dela ere: generoa, jatorri etnikoa, gaitasuna, erlijioa edo beste edozein.

#### III. KAPITULUA. Euskal Hezkuntza Sistemaren balioak.

5. artikulua.  
*Euskal Hezkuntza Sistemaren balioak.*

- 8. Euskal Hezkuntza Sistema gizarte demokratiko aurreratu baten berezko balioetan oinarritzen da, eta, zehazki, nortasunaren garapenean eta horrek irakaskuntzan eta ikaskuntzan duen formulazioan eta aplikazioan, bai eta harremanezko eremuan ere. Balio horiek oinarritzko hiru ardatz edo zutabetan bermatzen dira:

- a. Izan.
- b. Jakin.
- c. Elkarrekin bizi.

6. artikulua. *Izan.*

- 1. Hezkuntza-sistemak, oro har hartuta, helburua du pertsonak beren kabuz pentsatzea, norberaren ezaugarri indibidualak lantzea –bereziki, autonomia eta erantzukizuna–, autoestimua indartzea, ahalegin pertsonalaren kultura bultzatzea eta besteenganako jarrera positiboak garatzea, zehazki errespetua eta enpatia.
- 2. Era berean, izakiaren garapenaren bidez, balioetan eta bizikidetzan trebatu nahi da; besteekin eta ingurunearekin partekatzea eta elkartasuna izatea sustatu nahi da, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen jasangarritasunari begira, bereziki azpimarratuz zaurgarritasun bereziko egoeran dauden pertsonak identifikatzeko eta aitortzeko gaitasuna eta zaintzaren etika eraginkortasunez hedatzea.



8. artikulua. *Elkarrekin bizi.*

1. Ardatz honen helburua da ikastetxeetan desberdinen arteko harremanek eskaintzen dituzten esperientzia eta aukeretan sakontzea eta gatazkak zentzuz konpontzeko elkarrizketarako gaitasuna eta jarrerak garatzea, printzipio demokratikoak eta giza eskubideen errespetua eta bermea oinarri hartzen dituen hezkuntza aplikatuz eta balio eta esperientzia zibikoak landuz.
2. Elkarbizitzak, funtsezko balio gisa, berekin dakar arlo komunarekiko eta publikoarekiko kezka kontuan hartzea, elkargune eta bizi-garapenerako gune komuna den aldetik, bai eta, bereziki, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren politikaren oinarri diren ondasun publikoak zaintzea ere; baina elkarbizitzak, era berean, berekin dakar natura zaintzeko erantzukizunean hezte, jasagarritasunaren eta elkartasunaren ikuspegitik.

**4/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.**

Lege horrek, guztira, zortzi kapitulu, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

I. kapituluak arauaren xedea, aplikazio-eremua eta xede dituen kolektiboen definizioa biltzen ditu. Hala, aurreko arauaren aldean, transexualak ez ezik, transgeneroak eta intersexualak ere berariaz jasotzen ditu.

II. kapituluak trans arloko politika publikorako oinarriak ezartzen ditu. Kapitulu horrek, halaber, euskal administrazio publikoei eskatzen die adingabe transexualei beren nortasunaren garapen askea eta garapen integrala sustatzeko beharrezko babes eta arreta bermatzeko

VI. kapituluan, trans errealitatea hezkuntza-sisteman tratatzeari buruzko neurriak arautzen dira:

34. artikulua trans errealitateen tratamendua arautzen du oinarrizko hezkuntzan; 35. artikulua hezkuntza-arloko jarduerak; 36. artikulua eskola-eremuko trans errealitateen arretarako protokoloari buruzkoa arautzen du, dokumentu honen xedea baita; 37. artikulua hezkuntza-plan eta -edukiei buruzkoa jasotzen du, eta 38. artikulua prestakuntza-eta zabalkunde-ekintzei buruzkoa. Azkenik, 39. artikulua unibertsitate-hezkuntzari dagokiona jasotzen du.

Eskola-eremuko trans errealitateei arreta emateko protokoloari dagokionez, 36. artikulua honako hau ezartzen du:

1. Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen eta herri-administrazioen zuzendaritzarekin batera, oinarrizko helburua izango du transei beren errealizazio pertsonala eta soziala ahalbidetuko dien hezkuntza bermatzea. Horretarako, hezkuntza-sistemarekin harremana duen edozein pertsonari bidezko tratua emango zaiola bermatzeko beharrezkoak diren arau-, administrazio- eta bestelako neurri guztiak hartuko dituzte, besteak beste, ikasleei, irakasleei eta irakasle ez diren langileei, sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminaziorik gabe.
2. Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak bermatuko die ikasleei, irakasleei eta irakasle ez diren langileei gizarte-bazterkeria eta indarkeria mota guztien aurkako babes egokia, eskola-eremuko jazarpena eta jazarpena barne. Horretarako, ikastetxeko bizikidetzaplanaren esparruan, jokabide eta jarrera transfobikoen aurrean jarduteko protokolo bat txertatuko da, baldin eta aurreiritziak eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazioa badakarte, edo errealitate hori lehendik dauden gaiekin lotutako protokoloetan txertatuko da.

3. Hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloen arteko koordinazioa ahalbidetuko da, diskriminazio-egoeretan edo ikasleen, irakasleen eta irakasle ez diren langileen sexu- edo genero-identitateari erasotzen diotenetan azkar detektatzea eta jardutea bermatzeko.

4. Trans pertsonak dauden ikastetxean, prestakuntza- eta aholkularitza-gaietan eskumena duen sailak prestakuntza eta aholkularitza egokiak emango dizkie ikastetxeetako hezkuntza-komunitateari, irakasleei, administrazio- eta zerbitzuetako langileei, guraso-komunitateari eta ikasleei zuzendutako prestakuntza-plan integral baten bidez.

Haur eta gazteen transexualitatearen errealitatea berriaz ezagutzen duten profesionalak emango dute prestakuntza- eta aholkularitza-lan hori, transen eta adingabe transexualen familien elkarteekin lankidetzan.

Eskola-eremuko abordatze hori osasun- eta gizarte-esparruetatik egiten ari diren gainerako laguntza-jarduerekin koordinatuko da; eremu horietako guztietako profesionalak lankidetzan jardun ahal izango dute elkarren artean, eta elkarri laguntza eman ahal izango diote beren jardueretan, betiere transaren intimitatea errespetatuz eta jarduera horietan erabiltzen diren datuak babesteko baimen-baldintzak betez.

Bereziki, ikastetxeentzako protokoloaren barruan, trans programan laguntzeko eta haien familiei laguntzeko, neurri egokiak hartuko dira, helburu hauekin:

a. Sexu- eta genero-identitatearekiko errespetua bermatzea, bai eta identitate hori ikusarazi ala ez erabakitzeko eskubidea ere. Trans pertsonak dokumentazioan agertzen den izena ez den beste izen bat erabiltzea

erabakitzen badu, ikastetxean egiten diren irakaskuntzako eta eskolaz kanpoko jarduera guztietan izen hori erabiltzeko eskubidea errespetatuko zaio, eta ikastetxeko administrazio eta zerbitzuetako irakasleek zein gainerako ikasleek izen hori erabili beharko dute.

Jendaurreko erakusketako administrazio-dokumentazioa egokituko da, bai eta ikasleei, irakasleei eta ikastetxeko gainerako langileei zuzendu dakiekena ere; besteak beste, klase-zerrendak, kalifikazioei buruzko informazio-buletina, ikasle-txartela, tutoretza-ordutegiak edo hauteskunde sindikaletarako hauteskunde-zentroak. Dokumentazio horretan, aukeratutako izena agertuko da, eta ez da agertuko izen hori ikasle, irakasle edo ikastetxeko gainerako langileen izenetatik kanpo. Era berean, aukeratutako izena eta ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko gainerako langileen sexu- edo genero-identitatea jasoko dira datu-baseetan eta Eusko Jaurlaritzan hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren sistema informatikoan, eskola-informazioa kudeatzeko.

Erregistroko dokumentazioa zuzendu bada, izen horrekin eta sexuarekin bat datorren moduan izapidetuko da titulua ematea, historia akademikoan ageri diren izena eta sexua edozein direla ere.

b. Ikasleen, irakasleen eta irakasle ez diren langileen irudi fisikoa errespetatzea eta errespetaraztea, baita jantziak askatasunez aukeratzea ere. Ikastetxean sexuaren arabera bereizitako uniforme bat janzteko betebeharra badago, adierazitako sexu- edo genero-identitateari dagokiona janzteko eskubidea aitortuko da.

- c. Ikasleei, irakasleei eta trans-langileei beren sexuari dagozkion instalazioetarako sarbidea eta erabilera bermatzea, baldin eta ikastetxean sexuaren arabera bereizitako instalazioak badaude, hala nola komunak eta aldagelak.
- d. Pertsona bakoitzaren sexu-identitatea errespetatzea, sexuaren arabera bereizitako jarduerak egiten badira.
- e. Neurri horiek hartzeko, ez da inolako txostenik aurkeztu beharko.
- f. Trans pertsonen intimitaterako eskubidea uneoro errespetatzea, azpiegiturek intimitate hori ahalbidetzen duten elementuak izan ditzaten erraztuz.
- g. Adingabe emantzipatugabearen legeko ordezkariaren bat aurreko neurriak hartzearen aurka badago, zuzendaritzak oinarritzko gizarte-zerbitzu egokiarekin bat etorriko da adingabe transexualaren edo transgeneroaren kasua jorratzeko planteamenduan bat ez etortzea, eta edozein kasutan adingabearen interes gorena nagusituko du beste edozein interes legitimoren aurrean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan aurreikusitakoarekin bat etorrituz.
- h. Laguntza psikopedagogikoa bermatuko da, hezkuntza- eta psikopedagogia-orientazioko taldeen aholkularitzarekin, hala eskatzen duten egoeretan.
- i. Hezkuntza-planaren esparruan, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak eta ikastetxeek gogoeta bat bultzatuko dute espazioak bereizteari, espazio mistoak sortzeko aukerei, janzkeri eta eragina izan dezaketen gainerako elementuei buruz, bitarrak ez diren pertsonen eskubideen errespetua bermatzeko.

## 2/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena.

Legeak helburu hirukoitza du:

- Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo dauden haur eta nerabe guztiei bermatzea ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubide eta askatasunak egikaritu ahal izatea.
- Erantzunkidetasunaren betebeharretik, ekintza publikoko sektore-eremu guztietan botere publikoek garatu behar dituzten ekintzak zehaztea, aurreko apartatuan ezarritako helburua lortzeko.
- Jarduketa-printzipioak zehaztea eta sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes-jarduketa guztiei dagokien eskumen-esparrua ezartzea, baita koordinazio-, lankidetzeta- eta partaidetzeta-egiturak ere.

Legeak adingabeen eskubideak egituratzen ditu, haurrak eta nerabeak eremu material autonomo gisa aitortzen eta finkatzen ditu, zeharkakoa da funtsean, eta alderdi ugari ditu hainbat eskumen-eremurekin bereziki lotzen dutenak (gizarte-zerbitzuekin, osasunarekin, hezkuntzarekin, justiziarekin, aisia eta denbora librearekin...). Gainera, nahitaez koordinatu beharra dauka eskumen-eremu horiekin.

Era berean, Legearen 135. artikulua EAEko ikastetxe guztietako ongizate eta babeseko koordinatzailearen eginkizunak arautzen ditu.

Lehen azaldutako guztiari jarraikiz, eta hezkuntza-sistemaren eremuan ikasle adingabeen eskubideak babesteaz gain, aniztasun guztien inklusioa, bizikidetzak positiboak eta ikastetxeetako kide guztientzako esparru seguruak lortzea sustatzen duten ikastetxeak sortzen laguntze aldera, printzipio eta ohar orokor hauek hartuko dira aintzat:

- EAEko Hezkuntza Administrazioak zainduko du, EAEko hezkuntza-sistamarako Hezkidetzak Planaren esparruan, ikastetxeak errespetuzko espazioak izango direla, alegia, genero-identitatea edo sexu-orientazioa direla-eta presiorik, erasorik edo diskriminaziorik gabeak.
- Hezkuntza-jarduerak eta -neurriak jarriko dira, edozein sexu-orientazio, sexu-identitate eta genero-identitate besteak baino gutxiago edo gehiago delako ideian oinarritzen diren jarrera diskriminatzailerak gaitzetzeko hezkuntza-sisteman.

Bereziki, hezkuntza-komunitateak garatzen dituen proiektuek oso kontuan hartu behar dute pertsonen modu desberdinez onartzen dutela beren sexualitatea eta genero-identitatea, eta, horrenbestez, aintzat hartu behar dute pertsona bakoitzari bide horretan laguntzearen/akonpainamendua egitearen garrantzia. Zentzu horretan, baliteke egoera batzuetan, lehen azaldutako guztiaz gain, zenbait neurri hartu behar izatea adingabeei, hain familiei eta inguruari eta irakasleei laguntzea errazteko.

### **234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa.**

Dekretuaren xedea da transexualek, Erregistro Zibilean sexuari buruzko aipamena aldatzen duten arte, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkin transexualen kasuan, jatorrizko herrialdean erregistro-aldaketa egin ahal izan arte, eduki ahal izango duten dokumentazio administratiboa arautzea.

6. artikuluan, dokumentazio administratiboa jaulkitzearen ondorioak zehazten dira:

5. Hezkuntza arloan, dekretu honen bidez araututako dokumentazioa daukaten pertsonen honako eskubide hauek izango dituzte:
  - a. Libreki aukeratutako genero-nortasunaren arabera tratatuak izateko eskubidea.
  - b. Libreki aukeratutako genero-nortasunari dagokion izenarekin identifikatuak izateko eskubidea.
  - c. Ikastetxeko dokumentu administratiboak egokitzeko eskubidea, adibidez: ikasgelako zerrendak, kalifikazioen informazio-buletina, ikasle-txartela, hauteskunde sindikal edo administratiboetarako hautesle-errola eta bes-telakoak. Helburua hau da: dekretu honetan xedatutakoaren arabera jaulkitako dokumentazio administratiboan adierazitakoari jarraikiz, ikasle, langile eta irakasle transexualen genero-nortasuna kontuan hartzea.
  - d. Aurretik adierazitakoa gorabehera, ikaslearen espediente ofizialean ondorio ofizialearako erregistratutako nortasun-datuei eutsiko zaie.
6. Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, dekretu honetan aurreikusitako dokumentazioa jaulkitzeak ez du aldatuko dokumentazio hori lortzen duen pertsonari dagozkion eskubideen eta betebeharren titulartasun juridikoa, eta nortasun agiri nazionalaren zenbakiak agertu behar du, beharrezkoa denean.

**77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.**

6. artikulua.

*Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoak.*

8. Lehentasunezkoztat jotzen da haurren eta gazteen ongizate emozionalari arreta berezia jartzea. Ondo, harmonian eta lasai sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egin eta ondo gainditu ahal izateko gogobetetasun-esperientzia sartzen dira hor. Berezi, arreta jarri behar zaio indarkeria motaren bat —indarkeria matxista, LGBTIfobikoa edo arrazista edo dibertsitate-gaiei lotua— jasaten denean sortzen diren ondoez-egoerak identifikatzeari.

7. artikulua.

*Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak.*

d. Nortasunaren esparru guztietan eta gainerakoekiko harremanetan gaitasun afektiboak indartzea, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta indarkeria —berezi, indarkeria matxista eta indarkeria LGBTIfobikoa—, edonolako aurreiritziak eta portaera sexistak baztertzea.

**76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.**

6. artikulua.

*Batxilergoko etaparen printzipio pedagogikoak.*

8. Ikasgai guztietan, zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasun-hezkuntza, sentsibiltate estetikoa eta sorkuntza artistikoa, jasangarritasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrenganako errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarreraren eta portaeren prebentzioa, eta berdinen arteko lankidetzak. Berezi, arreta jarri behar zaio indarkeria motaren bat jasaten denean —indarkeria matxista, LGBTIfobikoa edo arrazista edo zeinahi dibertsitate motari lotua— sortzen diren ondoez-egoerak identifikatzeari.

Esparru horretan, abenduaren 2ko 201/2008 DEKRETUA ere nabarmendu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrak buruzkoa. Izan ere, haren helburua honako hau da: bizikidetzaren esparrua arautzea, ikastetxeetan ikasleek gizarte demokratiko, plural, tolerante eta berdinezalean elkarrekin bizitzen ikas dezaten, dagozkien eskubideak baliatuz eta dagozkien betebeharrak betez, bai eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak errespetatuz ere.





# 4



**Ikasle transei eta haien  
familiei hezkuntza-esparruan  
laguntzeko ikastetxeetarako  
protokoloaren helburuak**





Protokolo honen xedea da hezkuntza-esparruan behar bezala esku hartzeko orientabideak eta jarraibideak ezartzea **ikasle trans batek edo haren familiak eskatzen duenean** ikasleari jaiotzean ezarri zitzaionaz bestelako genero-identitatea, hark sentitzen edo adierazten duena, aitor diezaioten; bai eta ikasleen inklusio- eta babes-prozesuak erraztea ere, adingabearen interes gorenaren lehentasun-printzipioa inoiz ahaztu gabe (ABJLOren 2. artikulua)<sup>2</sup>. Hori dela eta, irakasleak sentsibilizatu eta prestatuko dira, eta ikasleei eta haien familiei laguntza eta aholkularitza emango zaie.

Horrez gain, funtsezkoa izango da jarduketak ezartzea beren genero-identitatearekin ados ez dauden ikasleen aurkako transfobia, bazterkeria, eskola-jazarpen edo indarkeria matxistako egoerak prebenitu, detektatu eta saihesteko. Era berean, hezkuntza-esparruan horrelako egoerak identifikatu eta komunikatzeko irizpideak ezarri dira. Horiek horrela, jarraitu beharreko neurriak deskribatu dira, ikasle transaren amek, aitek edo legezko tutoreek edo hezkuntza-komunitateko beste norbaitek ikastetxeari egoera horren berri ematen diotenerako.

Protokoloan, halaber, ikastetxean aplikatzeko antolakuntza- eta heziketa-neurriak ezarri dira, bai eta hezkuntza-komunitateari zuzendutako sentsibilizazio-, aholkularitza- eta prestakuntza-jarduketak ere.

Jarraian, hurrengo egoeretan egin beharreko urratsak zehazten dira:

- Ikasle trans batek jakinarazten duenean ez dagoela ados bere aurretiazko genero-identitatearekin.
- Amek, aitek edo legezko tutoreek jakinarazten dutenean beren seme-alaba ez dagoela ados aurretiaz ezarritako genero-identitatearekin.
- Hezkuntza-komunitateko beste edozein pertsonak jakinarazten duenean ikasle trans bat ez dagoela ados bere aurretiazko genero-identitatearekin.

Nolanahi ere, arau orokor gisa, ikasle trans batek eskatzen duenean bere genero-identitatea (sentitzen duena edo adierazten duena; jaiotzean ezarri ziotenaren bestelakoa) aitor diezaiotela, eskaera hori jaso duen irakasleak ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta azken horrek BAT taldea deituko du, ikaslearen hezkuntza-premiak identifikatzeko. Ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak irakasle-taldeari jakinaraziko dio erabakitakoa, aplikatu dezaten.

<sup>2</sup> 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen babes juridikoarena, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren aldaketa partziala egitekoa. <https://www.boe.es/buscar/pdf/1996/BOE-A-1996-1069-consolidado.pdf>

#### 4.1. Ikasle trans batek bere egoeraren berri ematen duenean

Ikasleak berak egiten badu bere genero-identitatea (sentitzen duena edo adierazten duena; jaiotzean ezarri ziotenaren bestelakoa) aitortzeko eskaera, honako hau izango da prozedura:

1. Eskaera jaso duen irakasleak ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta azken horrek BAT taldea deituko du, ikaslearen hezkuntza-premiak identifikatzeko eta, ondoren, premia horiek aitortzeko beharrezkoak diren jarduketak abiarazteko. [1. eranskina](#), aplikatuko da, protokoloa abiaraztea. Horretarako, familiari deituko zaio, 4. apartatuan adierazitako moduan.
2. Ikaslearentzako eta amekiko, aitekiko eta legezko tutoreekiko harremanetarako erreferentziatzeko pertsona bat izendatuko da. Garrantzitsua da harreman estua izatea bai ikaslearekin bai haren amekin, aitekin edo legezko tutoreekin. Horretarako, aldizkako bilerak egingo dira. Esku hartzeko plan bat egingo da ([2. eranskina](#)). Beharrezkotzat jotzen da ikasleak berak planaren prestakuntzan parte hartzea. Horretarako, Berritzegune Nagusiaren aholkularitza egokien lankidetzak eskatu ahal izango da (bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketa), eta aholkularitza horren bitartez, [Berdindu](#) zerbitzuaren lankidetzak ere bai.

Ikaslearekiko komunikazioa indartzea komeni da. Ikasleak familiari egoera jakinarazi ez dion kasuetan, hori nola transmititu aztertu beharko litzateke, dela baimena eskatuta jakinarazpena eskolak edo institutuak egiteko, dela ikasleak berak jakinarazteko, gure laguntzarekin, beharrezkoa bada.

Ikastetxeko zuzendariak [1. eranskina](#) bidaliko die erreferentziatzeko ikuskariari eta Berritzegune Nagusiko hezkidetzak-taldeari.

3. Ikastetxeak [Berdindu](#) zerbitzuaren lankidetzak eskatu ahalko du, Berritzegune Nagusiaren hezkidetzak-aholkularitzen bitartez, prestakuntza eskatzeko klastroarentzat eta familientzat, baita ikaslearen mailako taldeetako ikasleentzat ere. Halaber, aholkularitza eskatu ahalko du egoera zehatz bakoitza aztertzeko.
4. Anei, aitei edo legezko tutoreei haien seme-alabak kontatu duenaren berri ematea: planteatutako egoeraren aurrean hartzen duten jarrera baloratuko da, eta prozesuari buruzko informazio-trukea abiaraziko da.
  - a. Ikaslearen amek, aitek edo legezko tutoreek eskaeraren berri ez duten susmoa badago, edo trantsizio-prozesuaren aurrean ezjakintasuna edo erreparoa adierazten badute, eginiko eskaeraren ezaugarri zehatzak jakinaraziko zaizkie, bai eta ikasleari bere nortasuna modu libre eta ordenatuan garatzen uztearen garrantzia ere. Horrez gain, adingabeari dagozkion eskubideak ere jakinaraziko dizkiete.
  - b. Ikastetxea saiaturik da familiari laguntzen egoera ulertu, onartu eta kudeatzeko prozesuan, ikasleak bere identitatea eta nortasuna garatzeko duen eskubidea errespetatuz. Halaber, jakinaraziko zaie Eusko Jaurlaritzak LGTBI pertsoneri eta haien ingurukoei arreta eta informazioa emateko zerbitzu bat baduela: [Berdindu](#)<sup>3</sup>, eta zerbitzu horretara jotzea gomendatuko zaie, bai eta pediatriarenera ere (komeni dela uste bada eta oraindik ez badira harengana joan), egoeraren berri eman dezaten, eman beharreko pausoei, epeei eta abarrei buruzko informazioa jaso dezaten. Jarraipen-bilerak eskainiko zaizkie, eta ikastetxean egingo diren urrats guztiei buruzko informazioa emango zaie (protokoloa abiarazteari buruzkoa eta seme-alabaren egoerarekin eta bilakaerarekin zerikusia duten gai guztiei buruzkoa).

3 <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/berdindu/>

- c. Egiaztatzen bada amek, aitek edo legezko tutoreek ikastetxearekin lan egin nahi ez dutela (antolatutako bileretan parte hartzea) edo haien seme-alabak adierazitako errealitatea ukatzen badute, lankidetzaz eza edo genero-identitatea ez onartzea arrisku-egoeraren adierazletzat har daitezke; eta, beraz, familia bizi den udalerriko gizarte-zerbitzura jo beharko da, egoeraren berri emateko. Xede horretarako, agiri honetan definitutako prozedurari jarraitu beharko zaio: [Protokoloa](#), [hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak](#) eta [tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jardutekoa](#), eta [hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzaz eta koordinaziorako](#) (protokolo horren 1. eranskina).
- d. Amen, aiten edo legezko tutoreen jarrera negatiboa edo lankidetzaz eza ezingo da izan ikastetxeak bertako ikasleak sentitzen edo adierazten duen genero-identitatea EZ errespetatzeko argudioa. Kasu horietan, ikaslearen inguruabar partikularrei eta premia espezifikoei hobekien egokitzen zaien erabakia hartu beharko da hezkuntza-esparruan. Adingabearen interes gorenaren lehentasun-printzipioa bermatu beharko da (ABJLOren 2. artikulua)<sup>4</sup> bai eta haren eskubideen babesa ere beste edozein aldibereko interes legitimoren aurrean, adingabearen ongizatea, garapena (harmonikoa eta integrala) eta bizi oso baterako sarbidea bermatze aldera, ahalik eta autonomia-maila handiena izan dezan; eta, horretarako, eskola-eremuan eta hezkuntza-komunitatearen barruan aktiboki parte har dezala erraztuko da.
6. Ikasleak edozein motatako jazarpena jasoko balu haren genero-identitatea aitortzeko nahia dela eta, eskola-jazarpeneko protokoloa abiarazi beharko litzateke (ikus [3. eranskina](#)), eta A txostenean zehaztu beharko da mota honetako jazarpena dela: LGTBI +fobiako ekintzak.



4 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen babes juridikoarena, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren aldaketa partziala egitekoa. <https://www.boe.es/buscar/pdf/1996/BOE-A-1996-1069-consolidado.pdf>

## 4.2. Amek, aitek edo legezko tutoreek haien seme-alaba transaren egoeraren berri ematen dutenean

Ikasle transaren amek, aitek edo legezko tutoreek egiten dutenean adingabeari bere genero-identitatea (sentitzen duena edo adierazten duena; jaiotzean ezarri ziotenaren bestelakoa) aitortzeko eskaera, honako hau izango da prozedura:

1. Jakinarazpena irakasle bati edo zuzendaritza-taldeari egin ahal izan diote; edozein kasutan, ikasgela-taldeko tutoreari eta zuzendaritza-taldeari jakinarazi beharko zaie. Zuzendaritza-taldeak BAT taldea deituko du, ikaslearen hezkuntza-premiak identifikatzeko eta, ondoren, premia horiek aitortzeko beharrezkoak diren jarduketak abiarazteko. Orduan, [1. eranskina](#), aplikatuko da, protokoloa abiaraztea. Horretarako, familiari deituko zaio, 4. apartatuan adierazitako moduan.
2. Ikaslearentzako eta amekiko, aitekiko eta legezko tutoreekiko harremanetarako erreferentziazko pertsona bat izendatuko da. Garrantzitsua da harreman estua izatea bai ikaslearekin bai haren ama, aita edo legezko tutorearekin. Horretarako, aldizkako bilerak egingo dira. Esku hartzeko plan bat egingo da ([2. eranskina](#)), zeinetan ikasleak parte hartuko baitu (Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan). Horretarako, Berritzegune Nagusiaren dagozkion aholkularitzen lankidetzak eskatuko da (bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketa), eta aholkularitza horren bitartez, [Berdindu](#) zerbitzuaren lankidetzak ere bai.  
  
Komenigarria izango da ikaslearekin komunikazioa indartzea. Gertatuko balitz ikasleak familiari ez diola bere egoerari buruz ezer esan, hori transmititzeko modua aztertu beharko da, eta egin ahal izateko ikasleari baimena eskatuz bai eskolatik, edo institututik, bai ikaslea bera izan dadila familiari komunikatuko diona, gure laguntzarekin.
3. Ikastetxeko zuzendariak [1. eranskina](#) bidaliko die erreferentziazko ikuskariari eta Berritzegune Nagusiko hezkidetzak-taldeari.
4. Ikastetxeak [Berdindu](#) zerbitzuaren lankidetzak eskatu ahal du, Berritzegune Nagusiaren hezkidetzak-aholkularitzen bitartez, prestakuntza eskatzeko klaustroarentzat eta familientzat, baita ikaslearen mailako taldeetako ikasleentzat ere. Halaber, aholkularitza eskatu ahal du egoera zehatz bakoitza aztertzeko.
5. Amei, aitei edo legezko tutoreei jakinarazpena egitea, ikastetxean hartutako erabakien eta ordutik aurrera aplikatuko den koordinazio- eta komunikazio-prozeduraren berri emateko. Planteatutako egoeraren aurrean hartzen duten jarrera ikusi beharko da.
6. Ikastetxea saiatuko da gurasoei eta legezko tutoreei laguntzen egoera ulertu, onartu eta kudeatzeko prozesuan, ikasleak bere identitatea eta nortasuna garatzeko duen eskubidea errespetatuz. Halaber, jakinaraziko zaie Eusko Jaurlaritzak LGTBI pertsonen eta haien inguruko arreta eta informazioa emateko zerbitzu bat baduela: [Berdindu](#)<sup>5</sup>, eta zerbitzu horretara jotzea gomendatuko zaie, bai eta pediatriarenera ere (komeni dela uste bada eta oraindik ez badira harengana joan), egoeraren berri eman dezaten, eman beharreko pausoei, epeei eta abarrei buruzko informazioa jaso dezaten. Jarraipen-bilerak eskainiko zaizkie, eta ikastetxean egingo diren urrats guztiei buruzko informazioa emango zaie (protokoloa abiarazteari buruzkoa eta seme-alabaren egoerarekin eta bilakaerarekin zerikusia duten gai guztiei buruzkoa).
7. Ikasleak edozein motatako jazarpena jasoko balu haren genero-identitatea (sentitzen duena edo adierazten duena; jaiotzean ezarritakoaren bestelakoa) aitortzeko nahia dela eta, eskola-jazarpeneko protokoloa abiarazi beharko litzateke, ([ikus 3. eranskina](#)), eta A txostenean zehaztu beharko da mota honetako jazarpena dela: *LGTBI + fobiako ekintzak*.

5 <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/berdindu/>

### 4.3. Ikasle transaren egoera hezkuntza-komunitateko beste edozein kidek jakinarazten duenean

Hezkuntza-komunitateko beste pertsona batek egiten badu adingabearen genero-identitatea (sentitzen duena edo adierazten duena; jaiotzean ezarri ziotenaren bestelakoa) aitortzeko eskaera, honako hau izango da prozedura:

1. Eskaera jaso duenak ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta horrek BAT taldea deituko du, ikaslearen hezkuntza-premiak identifikatzeko eta, ondoren, premia horiek aitortzeko beharrezkoak diren jarduketak abiarazteko. [1. eranskina](#) aplikatuko da (protokoloa abiaraztea). Horretarako, amei, aitei edo legezko tutoreei deituko zaie, 4. apartatuan adierazitako moduan.
2. Ikaslearentzako eta amekiko, aitekiko eta legezko tutoreekiko harremanetarako erreferentziatzeko pertsona bat izendatuko da. Garrantzitsua da harreman estua izatea bai ikaslearekin bai haren familiarekin edo legezko tutoreekin. Horretarako, aldizkako bilerak egingo dira. Ikasleak ez badie familiari edo legezko tutoreei bere egoeraren berri eman, baimena eskatuko zaio egoeraren berri emateko, prozesuari berari buruzko informazioa trukatu ahal izateko.
3. Esku hartzeko plan bat egingo da ([2. eranskina](#)), zeinetan ikasleak parte hartuko baitu (Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan). Horretarako, Berritzegune Nagusiaren aholkularitza egokien lankidetzak eskatu ahal izango da (bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketa), eta aholkularitza horren bitartez, Berdinu zerbitzuaren lankidetzak ere bai.
4. Ikastetxeko zuzendariak [1. eranskina](#) bidaliko die erreferentziatzeko ikuskariari eta Berritzegune Nagusiko hezkidetzak-taldeari.

5. Ikastetxeak [Berdindu](#) zerbitzuaren lankidetzak eskatu ahal du, Berritzegune Nagusiaren hezkidetzak-aholkularitzen bitartez, prestakuntza eskatzeko klaustroarentzat eta familientzat, baita ikaslearen mailako taldeetako ikasleentzat ere. Halaber, aholkularitza eskatu ahal du egoera zehatz bakoitza aztertzeko.
6. Amekiko, aitekiko edo legezko tutoreekiko komunikazioa, prozesuaren berri emateko. Ikaslearen amek, aitek edo legezko tutoreek eskaeraren berri ez duten susmoa badago, edo trantsizio-prozesuaren aurrean ezjakintasuna edo erreparoa adierazten badute, eginiko eskaeraren ezaugarri zehatzak jakinaraziko zaizkie, bai eta ikasleari bere nortasuna modu libre eta ordenatuan garatzen uztearen garrantzia ere. Horrez gain, adingabeari dagozkion eskubideak ere jakinaraziko zaizkie.
  - a. Ikastetxea saiatuko da amei, aitei edo legezko tutoreei laguntzen egoera ulertu, onartu eta kudeatzeko prozesuan, ikasleak bere identitatea eta nortasuna garatzeko duen eskubidea errespetatuz. Halaber, jakinaraziko zaie Eusko Jaurlaritzak LGTBI pertsonen eta haien ingurukoei arreta eta informazioa emateko zerbitzu bat baduela: [Berdindu](#)<sup>6</sup>, eta zerbitzu horretara jotzea gomendatuko zaie, bai eta pediatriarenera ere (komeni dela uste bada eta oraindik ez badira harengana joan), egoeraren berri eman dezaten, eman beharreko pausoei, epeei eta abarrei buruzko informazioa jaso dezaten.

6 <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/berdinu/>

Jarraipen-bilerak eskainiko zaizkie, eta ikastetxean egingo diren urrats guztiei buruzko informazioa emango zaie (protokoloa abiarazteari buruzkoa eta seme-alabaren egoerarekin eta bilakaerarekin zerikusia duten gai guztiei buruzkoa).

- b. Egiaztatzen bada amek, aitek edo legezko tutoreek ikastetxearekin lan egin nahi ez dutela (bileretan parte hartzea) edo haien seme-alabak adierazitako errealitatea ukatzen badute, lankidetzaz eza edo genero-identitatea ez onartzea arrisku-egoeraren adierazletzat har daitezke; eta, beraz, familia bizi den udalerriko gizarte-zerbitzura joko da, egoeraren berri emateko. Xede horretarako, agiri honetan definitutako prozedurari jarraitu beharko zaio: [Protokoloa](#), [hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jardutekoa](#), eta [hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzaz eta koordinaziorako](#) (protokolo horren 1. eranskina).
- c. Amen, aiten edo legezko tutoreen jarrera negatiboa edo lankidetzaz eza ezingo da izan ikastetxeak bertako ikasleak sentitzen edo adierazten duen genero-identitatea EZ errespetatzeko argudioa. Kasu horietan, ikaslearen inguruabar partikularrei eta premia espezifikoiei hobekien egokitzen zaien erabakia hartu beharko da hezkuntza-esparruan, eta, edozelan ere, adingabearen interes gorenaren lehentasun-printzipioa bermatu beharko da (ABJLOren 2. artikulua)<sup>7</sup>, bai eta haren eskubideen babesa ere beste edozein aldibereko interes legitimoren aurrean, adingabearen ongizatea, garapena (harmonikoa eta integrala) eta bizi oso baterako sarbidea bermatze aldera, ahalik eta autonomia-maila handiena

izan dezan; eta, horretarako, eskola-eremuan eta hezkuntza-komunitatearen barruan aktiboki parte har dezala erraztuko da..

8. Ikasleak edozein motatako jazarpena jasoko balu haren genero-identitatea aitortzeko nahia dela eta, eskola-jazarpeneko protokoloa abiarazi beharko litzateke, (ikus [3. eranskina](#)), eta A txostenean zehaztu beharko da mota honetako jazarpena dela: *LGTBI +fobiako ekintzak*.

#### 4.4. Oinarrizko antolakuntza-neurriak eta segurtasun- eta babes-neurriak hartzeko orientabideak

Pertsona bakoitza bakana dela kontuan hartuta, oinarrizkoa da kasu bakoitzean planteatzen diren premiei erreparatzea. Premia horien arabera, irakasle-taldeak, adingabeak eta amek, aitek edo legezko tutoreek neurri hauetakoren bat hartzea planteatu ahalko dute:

- Irakasleek eta gainerako langileek ikasle transak eta/edo haren amek, aitek edo legezko tutoreek jakinarazitako edo aukeratutako izena erabiliko dute ikasle horri zuzentzeko, bai eskola-jardueretan (idatzizko azterketak barne), bai eskolaz kanpokoetan.
- Ikastetxeko barne-erabilerarako dokumentazio administratiboa (ikasle-zerrendak, kalifikazioen informazio-buletinak, liburutegiko txartelak, ikasle-txartelak, etab.) ikasle transak bere burua identifikatzen duen sexura aldatuko dira, izen ofizialaren aldaketa egiten den arte.
- Ikastetxean antolatzen diren sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerez gain ([Berdindu](#) zerbitzuarekin lankidetzan), ikasgelataldeko irakasle tutoreak hausnarketa eta sentsibilizaziorako uneak ere bilatuko ditu, taldeari jarduerak planteatuta, ikasgelan dauden sexu-aniztasunak eta/edo genero-aniztasunak ikusarazi eta integratzeko.

<sup>7</sup> 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen babes juridikoarena, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren aldaketa partziala egitekoa. <https://www.boe.es/buscar/pdf/1996/BOE-A-1996-1069-consolidado.pdf>

- Ikastetxe-ingurunean, pertsona guztiei bermatuko zaie beren nortasuna adierazteko egokitzat jotzen duten janzkera erabiltzeko eskubidea, bai eta uniformea erabiltzen duten ikastetxeetan ere.
- Beharrezkoak diren kudeaketak egingo dira ikasle transak ikastetxean sexuaren arabera bereizitako gune guztietatik (komunak, aldagelak...) nahi duena erabiltzeko. Adingabearen iritzia kontuan izango da une oro, eta haren segurtasuna eta intimitatea bermatzeko moduan jardungo da.
- Kasuren batean, espazio horiek sexuen arabera jarduera jakin batzuetarako bereizi edo antolatu behar badira, helburu zehatz batzuekin bat datozen arrazoiak direla-medio, irakasleek kontuan hartuko dute zein sexurekin sentitzen den identifikatuta ikaslea.
- Baldin eta ikastetxean sexuen araberako banaketa edo antolaketa egiten duten kirol-taldeak edo kirol-lehiaketak badaude, adingabeak, zer sexurekin identifikatzen den, hari dagokion ekipoa edo lehiaketan parte hartuko du, hala nahi izanez gero.
- Erraztasunak emango dira ikasle transak adierazten duen sexuari dagozkion komunak eta aldagelak erabiltzeko, haren eta gainerako ikasleen ongizatea, segurtasuna eta intimitatea bermatuta. Soluzioak adostu beharko dira ikastetxearen eta ikaslearen edo haren amen, aiten edo legezko tutoreen artean. Beharrezkoa balitz, Berdinu zerbitzuak eta Berritzegune Nagusiak bitartekari gisa jardungo lukete.
- Neurri horiek guztiak ikastetxearen Bizikidetzaren Planean eta Hezikidetzaren Planean sartuko dira.

#### 4.5. Pertsona transek izena aldatzeko egin beharreko prozedura administratiboa

Sexua eta izena erregistroan aldatu ahal izango dira<sup>8</sup> prozedura administratibo baten bidez. Horretarako, Erregistro Zibilean agertu eta dagokion inprimakia bete behar da. Ondoren, erregistroko arduradunak aldaketa horrek berekin ekarriko dituen legezko ondorioen berri emango dio interesdunari. Aldaketa egiteko nahia egiaztatu ondoren, berriro agertu beharko da Erregistro Zibilean, gehienez 3 hilabeteko epean, eskaera berresteko. Orduan, Erregistro Zibileko arduradunak ebazpena emango du. Ebazpen hori eraginkorra izango da gehienez hilabeteko epean (bi aldiz agertu ondoren).

Legeak honako hau ezartzen du erregistroan sexua eta izena aldatzeko:

- 16 urtetik gorako pertsonak: beren kabuz agertzea Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean.
- 14-16 urte bitartekoak: 16 urtetik gorakoen antzeko prozesua, baina une oro legezko ordezkariak lagunduta. Horien artean edo adingabearekin eztabaidarik egongo balitz, defendatzaile judizial bat izendatuko litzateke.
- 12-14 urte bitartekoak: borondatezko jurisdikzio-espeditentea sustatu beharko da, legezko ordezkariak lagunduta. Hortaz, beharrezkoa izango da egoerari dagozkion "heldutasuna" eta "egonkortasuna" egiaztatzeko baimen judiziala aurkeztea, adingabeari behar bezala entzun ondoren.

Erregistroan sexua aldatzeko gutxieneko adina dago; izena, aldiz, edozein unetan aldatu daiteke, baita 12 urtetik beherako kasuan ere.

8 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.

Horri lotuta, izena aldatu duenak eskubidea izango du administrazio publiko, erakunde pribatu eta edozein pertsona natural edo juridikok dokumentu guztiak eginiko aldaketaren ondoren agertzen den izenarekin jaulkitzeko<sup>9</sup>.

Cuando se solicita la documentación, se puede pedir que se comunique el cambio a las administraciones o servicios públicos vascos con los que se tiene relación (Osakidetza, departamento competente en materia de educación, Gazte txartela, tarjetas de transporte, bibliotecas o polideportivos municipales, deporte escolar, ...). A partir de ese momento, estos quedarán obligados a tratar a las personas transexuales de acuerdo con su identidad de género.

Dokumentazioa eskatzean, harremana duten euskal zerbitzu publikoei edo administrazioei aldaketaren berri emateko eskatu daiteke (Osakidetza; hezkuntzaren arloko sail eskuduna; Gazte Txartela; garraioko, liburutegiko edo udal-kiroldegiko txartelak, eskola-kirola, etab.). Une horretatik aurrera, haiek behartuta egongo dira pertsona transexualak beren genero-identitatearen arabera tratatzera.

Inprimaki espezifikoa bete eta sinatu behar da, eta dokumentazioarekin batera aurkeztu, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean); hiru hiriburuetan bulego bana dago. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan ere aurkez daitezke inprimakia eta dokumentazioa.

Euskadiko eskualde guztietatik modu errazean ere bidal daitezke, posta ziurtatuz, berdintasunaren arloko eskumena duen sailera.

Izapide horiek guztiak egiteko, Berdinu zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza eska daiteke (ikusi [3. eranskina](#)).

Ikasleren batek tituluren bat badu aurreko izenarekin eta berriro eskatu nahi badu izen berria ager dadin, titulua izapidetu zuen ikastetxeari eskatu beharko dio, berriro eska dezaten.



<sup>9</sup> Nolanahi ere, Erregistro Zibilean izena aldatzeko eta/edo sexua adierazteko eskaera alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzak ahalbidetu egiten du, Transexualen dokumentazio administratiboari buruzko abenduaren 22ko 234/2015 DEKRETUAREN bidez, sexu-aipamena zein izena autonomia-erkidegoko administrazioaren menpeko instantzia guztietan aldatzeko. Horiek horrela, Erregistro Zibilean datuak aldatu gabe, Hezkuntza Sailean, ikastetxean bertan eta eskola-kirolean alda daitezke, besteak beste.



5



**Eranskinak**



## 1. ERANSKINA. PROTOKOLOAREN IREKIERA

### 1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

### 2. Ikaslearen identifikazio-datuak

Izen-abizenen inzialak	
Generoa	
Adina	
Maila/Taldea	

### 3. Jakinarazitako egoera

(Adierazi nor jarri den harremanetan hasiera batean eta norekin egingo den agiri hau)

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

#### 4. Hartutako antolakuntza- eta segurtasun-neurriak

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

.....(e)n, 20.....(e)ko .....(a)ren ..... (e)(a)n.

Zuzendaria .....

Eskatzailea .....

Sin.:

Sin.:

Eskatzaileak ez ditu akta honetan jasotako informazioak zabaldu behar, ezta bileran landutako gaiak ere (Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren -Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa- 7. artikulua).



Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo hobeto sentiarazten duten egoerak eta horretarako arrazoiak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo gaizki sentiarazten duten egoerak nola hobetu daitezke?  
Zer-nolako laguntzekin?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Hartu beharreko antolakuntza- eta segurtasun-neurriak (ikaslearekin adostu eta familiari jakinarazitakoak).

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Kontuan hartu behar diren beste alderdi batzuk.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### 3. ERANSKINA. ESKOLA-JAZARPENEN PROTOKOLOA (5 agirik osatzen dute)

#### EAE-KO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAN ESKOLA JAZARPENEN EGOERETAN JARDUTEKO PROTOKOLOAREN ERANSKINAK:

##### 0. eranskina: ESKU-HARTZE ESKARIARI BURUZKO AKTA

Familia	Eskariaren jatorria (X batekin adierazi)
Bestelakoak	

Adierazi eskariaren jatorria (irakasleak, irakasle ez diren langileak, pediatrak, etab.)

#### 1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

#### 2. Ustezko biktimaren identifikazio-datuak

Izen-abizenen inizialak	
Generoa	
Adina	
Maila/Taldea	

#### 3. Azaldutako gertakariak

Ahalik eta zehaztasun handienaz transkribatuko dira eskaria egiten duen pertsonak adierazitako gertakariak. Ustez inplikaturik dauden ikasleak inizialen bidez identifikatuko dira.

.....

.....



.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**4. Ustezko biktimaren segurtasuna bermatzeko zuzendaritzak hartuko dituen neurriak eta ebidentziak biltzeko prozesuari buruzko informazioa**

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

.....(e)n, 20.....(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendaria .....

Eskatzailea .....

Sin.:

Sin.:

Eskaria egiten duen pertsonak ez ditu zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak ere (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 171982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

## IRAKASLE-TALDEAREN BILERAREN AKTA

### 1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ustezko biktimaren izena eta abizenen inzialak	

### 2. Bilerara bertaratuak

Izen-abizenak	Kargua*	Izenpea

\* Adierazi nor diren BAT taldeko kideak

### 3. Kasuari buruzko informazio garrantzitsua

Atal honetan, bilerara bertaratutako pertsonen emandako informazioa sartuko da. Nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da aipatutako gaien buruz, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### 4. Hartutako erabakiak

Berariaz adieraziko dira ebidentziak biltzeko prozedurari buruz hartutako erabakiak, bai eta ustezko biktimari zuzendutako babes-neurri espezifikoien buruzkoak ere.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....(e)n, 20.....(e)ko .....(a)ren (e)(a)n.

Zuzendaria .....

Sin.:

OHARRA: Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte.

## AKTA-EREDUA

### 1. Bilerara bertaratuak

.....  
.....

### 2. Bileraren helburuak

.....  
.....

### 3. Erabakiak, ondorioak eta proposamenak

.....  
.....  
.....

.....(e)n, 20.....(e)ko .....(a)ren ..... (e)(a)n.

Zuzendaria .....

Bertaratuak .....

Sin.:

Sin.:

Bileran egon diren pertsonak ez dituzte zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak ere (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 171982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

OHARRAK:

- Ustez inplikaturik dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.
- Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentziasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturik gainerako ikasleei buruzkoa.

## A TXOSTENA

### 1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

### 2. Hasierako informazioa<sup>1</sup>

Inplikaturako ikasleen identifikazio datuak.

a. Ustezko biktima:

	Ikaslea
Inizialak (izen-abizenak)	
Generoa	
Adina	
Maila eta taldea	

b. Salatutako jokabidearen ustezko eragileak:

	Ikasleak
Inizialak (izen-abizenak)	
Generoa	
Adina	
Maila eta taldea	

• Ustezko jazarpena gertatu den lekua.

.....

.....

• Lekukoak, halakorik bada (erabili inizialak).

.....

.....

<sup>1</sup> Nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da izapideetan eta ikerketetan, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.

- Informazio osagarria.

	X batekin adierazi
Badago mediku-txostena Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Salaketa jarri da Polizian, epaitegietan edo Fiskaltzan Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	

## 1. Ikastetxeak lortutako informazioa

Ikastetxeak bildutako **datuak eta ebidentziak**, esku hartzeko eskaria oinarri hartuta.

Zehatz-mehatz eta objektiboki deskribatuko dira datuak eta ebidentziak, pertsona hauengandik eta metodo hauen bidez jasotakoak:

- **Ustezko biktima:** behaketak, elkarrizketak erreferentziazko pertsonarekin, banakako tutoretzak, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak, autotxostenak, autonarrazioak, etab.
- **Ikasgelako ikasleak:** heterotxostenak, banakako tutoretzak, postontzia, etab.
- **Lekukoak:** behaketak, banakako tutoretzak, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak...
- **Jazarpen-jokabidearen ustezko erantzuleak:** oharrak, banakako tutoretzak, elkarrizketak erreferentziazko pertsonarekin, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak...
- **Familiak** (ustezko biktimarenak eta jazarpen-jokabidearen ustezko erantzuleenak): elkarrizketak, bilerak...
- **Irakasleak eta irakasle ez diren langileak:** triangulazio-bilerak

.....

.....

.....

## 2. Informazioaren azterketa

Ondorio garrantzitsuak, aurreko atalean jasotako ebidentzietatik abiatuta.

.....

.....

.....

### 3. Jazarpenik dagoen ala ez balioestea, jasotako ebidentzietan oinarrituta

Erantzun bakoitzaren argudiaketa arrazoitua.

- Ba al dago botere-desorekarik / babesgabetasunik?

Kontuan hartuta jazarpen-jokabidea duten pertsonen kopurua, beldurrarazte-maila...

.....

.....

.....

- Ba al dago mina eragiteko intentziorik?

Umiliatzeko asmoa kontuan hartuta (erasoak jendaurrean gertatzen diren...)

.....

.....

.....

- Ba al dago pertsonalizatorik?

Erasoak edozein ikasleri bereizketarik gabe eta intentsitate berarekin gertatzen EZ direnean...

.....

.....

.....

- Ba al dago errepikapenik?

Erasoa edo haren ondorioak denboran mantentzen direnean, errepikapena dagoela ondorioztatzen da (adibidez: ziberjazarpena).

.....

.....

- Horregatik guztiagatik, jazarpena dagoela ondorioztatzen da?

Badago jazarpena	X batekin adierazi
BAI	
EZ	

Uste izanez gero JAZARPEN kasua dela, haren ezaugarriak adierazi beharko dira. Adierazi beheko taulan kasuaren berezitasunak.

Adibidea: Kasu batean gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa (1), hitzezko eraso (2) eta ziberjazarpena (7) badago, taulan 1, 2 eta 7 apartatuak markatuko dira

	Ez	Bai	Puntuala	Errepiatua
<b>1. Gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa</b> - Norbait aintzat ez hartzea (pasiboa). - Ez uztea parte hartzen (aktiboa).				
<b>2. Hitzeko eraso</b> - Norbait iraintzea (zuzena). - Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa) - Goitzenak jartzea (mistoa).				
<b>3. Zeharkako eraso fisikoak</b> - Norbaiti gauzak ezkutatzea - Norbaiti gauzak puskatzea - Norbaiti gauzak lapurtzea				
<b>4. Eraso fisiko zuzenak</b> - Norbait jotzea.				
<b>5. Larderia/xantaia/mehatxua</b> - Norbait mehatxatzea beldurrarazteko - Gauzak egitera behartzea - Armekin mehatxatzea				
<b>6. Sexu-jazarpena edo -abusua eta/edo jazarpen sexista</b> - Sexualki jazartzea edo beldurtzea - Sexu-abusua gauzatzea - Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
<b>7. Ziberjazarpena</b> - Mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, whatsappen eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko. - Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexing), eta lagunen artean edo Interneten zabaltzea.				
<b>8. LGTBIQ+fobiako ekintzak</b> - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea LGTBI pertsona izateagatik. - Hitzeko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxuak LGTB pertsona izateagatik				
<b>9. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen aurkako erasoak, dituzten ezaugarriak direla-eta</b> - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea - Hitzeko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxua				
<b>10. Eraso arrazistak</b> - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea - Hitzeko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxua				



#### 4. Jazarpenik ez dagoenerako hezkuntzako jarduketa-plana

Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den.

Honako hauek kontuan hartuta zehaztuko da:

1. Jarduketa-ildo espezifikoak
2. Arduradunak
3. Tenporalizazioa
4. Jarraipena eta ebaluazioa
5. Familiekin komunikatzeko prozedura

.....

.....

.....

**Jazarpenik BAdago:** Kasua amaitu ondoren, hasierako fasean aurreikusitakoez gain, beste neurri batzuk ere zehaztu ahal izango dira biktimaren babesa bermatzeko. Inplikaturako gainerako ikasleekin hartutako neurriak ere deskribatuko dira. Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## 5. Familiekiko komunikazioa

Datak, prozedurak, edukia, akordioak, etab.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

..... (e)n, 20..... (e)ko ..... (a)ren ..... (e)(a)n.

Zuzendaria .....

BAT taldeko kideak .....

Sin.:

Sin.:

## B TXOSTENA: HEZKUNTZAKO JARDUKETA-PLANA

### 1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ustezko biktimaren izen-abizenen inzialak	

### 2. “A TXOSTENA” hezkuntzako ikuskaritzara igorri ondoren eskuratu den informazio osagarria eta datu esanguratsuak

Bileretatik, elkarrizketetatik, gelan ohartemandakotik, beste toki batzuetatik edota beste iturri batzuetatik bildutako informazio berriaren deskripzioa.

.....

.....

.....

.....

.....

### 3. Jarduketa-plana

Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea.

.....

.....

.....

.....

.....

### Hezkuntza-jarduketak.

- **Biktimarekin**

.....

.....

.....

.....

.....

- **Jokabide jazarlea duten ikasleekin**

.....

.....

.....

.....

.....

- **Ikasle ikusleekin edo, hala badagokio, ikasgelako taldearekin**

.....

.....

.....

.....

.....

### Beste jarduketa batzuk.

- **Familiekin**

.....

.....

.....

.....

.....

• Irakasleekin

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ziberjazarpen kasuetarako jarduketa espezifikoak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**4. Bilerak familiekin edo legezko tutoreekin**

Datak, bertaratuak, bileraren helburuak eta ondorioak eta bileretan hartutako erabakiak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## 5. Jazarpen egoeraren jarraipena eta ebaluazioa

Jarduketa-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak.

.....  
.....  
.....  
.....

Jarduketa-planaren eta egindako esku-hartzeen ebaluazioa.

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Hezkuntzako Ikuskaritzari kasuaren jarraipenari buruzko informazioa emateko prozedura eta maiztasuna.

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

.....(e)n, 20....(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Zuzendaria .....

BAT taldeko kideak .....

Sin.:

Sin.:

## 4. ERANSKINA. BERDINDU ZERBITZUA<sup>11</sup>

Berdindu da lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei (LGTBI) eta haien inguruneari informazioa eta arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua.

Hezkuntza-komunitatearekin, eragile sozialekin eta profesionalekin ere lan egiten du, eta LGTBIfobia ezabatzea eta LGTBI pertsonen eskubide eta askatasunak erabat baliatzeko egon daitezkeen oztopoak kentzea du helburu.

### ZERBITZUAK:

- **Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei arreta ematea. Irakasleak**

Klaustroarentzako eta hezkuntza-komunitatearentzako prestakuntza sexu- eta genero-aniztasunari buruz:

- Sexu- eta genero-aniztasuna kudeatzeko aholkularitza, ikastetxean LGTBIfobia kasuak gertatzen direnean edo ikasle trans batek trantsizio soziala egiten duenean.
- Ikastetxeko planetan, hezkidetza-planetan eta bestelako planetan sexu- eta genero-aniztasuna sartzeko aholkularitza.

- **Ikasleentzako tailerrak**

- 4 orduko sentsibilizazio- eta prestakuntza-tailerrak Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat sexu- eta genero-aniztasunari buruz.

- **Familientzako tailerrak**

- Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko 2 orduko tailerrak ikastetxeko familientzat.

- **Hezkuntzako Beste Profesional Batzuentzako Prestakuntza**

- Aniztasunari buruzko tailerra Berdinduren bulegoetan: sexu- eta genero-aniztasunari buruzko oinarrizko prestakuntza eskola-eremuko eta hezkuntza-inguruneko pertsonentzat.

**Berdinduri** buruzko informazio gehiago: [berdindu.eskolak@gmail.com](mailto:berdindu.eskolak@gmail.com)

**Vitoria-Gasteiz:** Ramiro de Maeztu, 3 – beheko solairua. . Vitoria-Gasteiz. 945 029079

[berdindu.araba@gmail.com](mailto:berdindu.araba@gmail.com)

**Bilbao:** Ramón y Cajal, 2 - beheko solairua. / Bilbao. 94 6453322

[berdindu.bizkaia@gmail.com](mailto:berdindu.bizkaia@gmail.com)

**Donostia:** Mikelete pasealekua 20. Donostia. 943 216551

[berdindu.gipuzkoa@gmail.com](mailto:berdindu.gipuzkoa@gmail.com)

<sup>11</sup> <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/berdindu/>

## 5. ERANSKINA. TRANS GAIAREKIN LOTUTAKO DEFINIZIOAK

**Bifobia**<sup>1</sup>: bisexualekiko gaitzespen, arbuio, aurreiritzi, diskriminazio edo intolerantziatzko jarrera, jokabide edo diskurtso oro, bisexualak izateagatik edo hala hautemateagatik.

**Genero-binarismoa**<sup>2</sup>: gizartean bi genero (femeninoa eta maskulinoa) besterik ez daudela uste duen antolakuntza-sistema.

**Bisexualitatea**<sup>3</sup>: bi sexuenganako erakarpina sentitzen duten emakumeak eta gizonak. Emakumeenganako eta gizonenganako erakarpina sentitzen duten emakumeak. Emakumeenganako eta gizonenganako erakarpina sentitzen duten gizonak.

**Genero-adierazpena**<sup>4</sup>: pertsona bakoitzaren sexu-identitatearen adierazpena.

**Heteronormatibitatea**<sup>5</sup>: gure gizartean nagusi den ideologia; horren arabera, harreman heterosexualak dira jarraitu beharreko arau eta ereduak.

**Heterosexualitatea**<sup>6</sup>: Sexu-orientazioa. Beste sexuko pertsonenganako erakarpina sentitzea. Gizonenganako erakarpina sentitzen duten emakumeak. Emakumeenganako erakarpina sentitzen duten gizonak.

**Homofobia**<sup>7</sup>: homosexualekiko gaitzespen, arbuio, aurreiritzi, diskriminazio edo intolerantziatzko jarrera, jokabide edo diskurtso oro, homosexualak izateagatik edo hala hautemateagatik.

**Homosexualitatea**<sup>8</sup>: Sexu-orientazioa. Emakumeenganako erakarpina sentitzen duten emakumeak (lesbianak). Gizonenganako erakarpina sentitzen duten gizonak.

**Sexu-identitatea**<sup>9</sup>: sexuari buruzko barne-bizipen indibiduala, bakoitzak sentitzen eta autodefinitzen duenaren arabera; jaiotzean ezarritako sexuarekin bat etor daiteke ala ez.

**Lesbianismoa**<sup>10</sup>: emakumeenganako erakarpina sentitzen duten emakumeak. Sexu-orientazioa. Termino hau lesbianismoa ikusgai egiteko erabiltzen da.

**Lesbofobia**<sup>11</sup>: emakume lesbianekiko edo lesbiana gisa hautemandako emakumeekiko beldurra eta gaitzespena.

**LGTBI**<sup>12</sup>: akronimo hori lesbianak, gayak, transexualak, bisexualak, intersexualak, queerrak eta abar definitzeko erabiltzen da.

1 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.

2 Guztiok. Ikasgelan sexu heziketa lantzeko eskuliburua.

3 Guztiok. Ikasgelan sexu heziketa lantzeko eskuliburua.

4 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.

5 Guztiok. Ikasgelan sexu heziketa lantzeko eskuliburua.

6 Guztiok. Ikasgelan sexu heziketa lantzeko eskuliburua.

7 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.

8 Guztiok. Ikasgelan sexu heziketa lantzeko eskuliburua.

9 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.

10 Guztiok. Ikasgelan sexu heziketa lantzeko eskuliburua.

11 Guztiok. Ikasgelan sexu heziketa lantzeko eskuliburua.

12 Guztiok. Ikasgelan sexu heziketa lantzeko eskuliburua.



**LGTBifobia**<sup>13</sup>: LGBTI pertsonetikiko gaitzespen, arbuio, aurreiritzi, diskriminazio edo intolerantziatzko jarrera, jokabide edo diskurtso oro, kolektibo horretako kide izateagatik edo hala hautemateagatik.

**Sexu-orientazioa**<sup>14</sup>: pertsona batenganako erakarren fisikoa, sexuala edo afektiboa. Sexu-orientazioa askotarikoa izan daiteke: heterosexuala, erakarren fisikoa, sexuala edo afektiboa sentitzen denean soilik beste sexu bateko pertsonetikiko; homosexuala, erakarren fisikoa, sexuala edo afektiboa sentitzen denean soilik sexu bereko pertsonetikiko; edo bisexuala, erakarren fisikoa, sexuala edo afektiboa sentitzen denean edozein sexuko pertsonetikiko. Azken kasu horretan, ez da aldi berean, modu berean edo maila edo intentsitate berean izan behar.

Gizonezko homosexualak gayak dira, eta emakumezko homosexualak lesbianak.

**Pansexualitatea**<sup>15</sup>: sexuaz eta generoaz harago pertsonenganako erakarpenera sentitzen duten emakumeak eta gizonak.

**Transak**<sup>16</sup>: pertsona horien sexu-identitatea ez dator bat jaiotzean ezarritakoarekin.

**Transfobia**<sup>17</sup>: transekiko gaitzespen, arbuio, aurreiritzi, diskriminazio edo intolerantziatzko jarrera, jokabide edo diskurtso oro, kolektibo horretako kide izateagatik edo hala hautemateagatik.

---

13 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.

14 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.

15 Guztiok. Ikasgelan sexu heziketa lantzeko eskuliburua.

16 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.

17 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN